

Fukushima, saiakera eremua

FUKUSHIMAKO zentral nuklearra lehertu zenetik urte eta erdi pasatxo igaro da. Japoniako Gobernuak eta zentrala kudeatzen duen enpresak noizean behin egoera orokorrari buruzko datuak ematen badituzte ere, bertako berriemaile independente zenbaiten jarraipena egiten ari gara hilabete hauetan. Erradiazioa oso barreiatuta dagoela badakigu, batzuetan animaliak gaixotzen dira, bestetan landarengan aldaketa genetikoak sumatzen dira, eta nola ez, leuzemia kasuen hazkundera aipagarria da hainbat hiritan. Oro har anomalia gehiago detektatzen dira, ez oso kantitate handitan baina bai, aldiz, lur eremu zabaletan: hemen leuzemiaren hazkundera dago, hoge kilometrorra ez da ezer sumatzen, 40 kilometrorra erradiazio handia neurtzen da arroz uztetan... Egoera anarkiko samarra dela esan daiteke, intentsitate txikikoa eta iraunkorra aldi berean. Inork ez daki natura, gizakia barne, gai izango ote den erradiazio txiki, iraunkor eta anarkiko horri egokitzeko.

Badirudi zentraletik ateratzen ari den erradiazioa oraingo mailan mantentzen bada, erradiazioaren eta biziaren arteko oreka lortzea dela Japoniako Gobernuaren asmoa, baina horretarako hamarkada batzuk igaro behar dira. Ez dirudi unean uneko balantzeak larriak izango direnik; aldiz, hemendik 30ra urte balantze metatua eginez gero, milioika pertsonarengan eragina izango duela ziur naiz, baina orduan beste agintari batzuk izango direnez eta agian zentral nuklearrak historia izango direnez, inork ez du erantzukizunik izango.

Saiakerak saiakera, orain gutxi erakutsi dute urte gutxi barru zentrala desmuntatzen hasi behar duten langileen metalezko arropa-sistema, HAL deiturikoa. 70 kilogramo pisatzen du, eta langi-

Hau da HAL, Fukushimako zentrala desmuntatu beharko duten langileek eramango duten jantzi berezia.

leen bizi ezaugarriak kontrolatzeaz gain, mugimenduak errazteko mekanismo robotikoak ditu.

Geuri hilkutxara psikologikoki ohitzen joateko sistema iruditu zaigu. ■



KEN SHIMIZU/APP/GETTY IMAGES

Aurten txikia izan da ozono geruzaren zuloa

Antartikan udaberrian sartzean, gurean udazkena ailegatzean, ozono geruza txikitzen hasten da iragandako mendean igorritako kutsatzaileen eraginez. Urtero begiratzen dugu geruzaren tamaina noraino txikitzen den, eta aurten berri onak ditugu: mende honetako zulorik txikiena izan dugula baieztatu dezakegu.

ttiki.com/43616
(Ingeleseaz)

Googlek atea zabandu ditu... birtualki

Ez pentsa Googlek bisita gidatuak antolatu dituenik militarki antolatuta dituen zerbitzari-guneak bisitatu ahal izateko. Argazki eta bideo bidezko bisitak baino ez ditu antolatu estatubatuar konpainiak; hor erakusten dutena ondoko loturan ikus dezakezue.

ttiki.com/43617
(Frantsesez)

Jariakinen portaera duten metal solidoak

AEBetako zenbait ikerlarik behatu dutenez, eskala mikroskopikoan pieza metaliko solido bat beste baten gainean higitzean jariakinek izaten dituzten propietateak sortzen dira. Aurkikuntza horrek higadura saihesteko bideak zabandu ditzake.

ttiki.com/43618
(Gaztelaniaz)

AFP/GETTY IMAGES



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16